

## NEKOSTAK<sup>1</sup> ESAN ZUENA

NERE ADISKIDE MAITE ANTONIO ARZÁK JAUNAREN AMA ERRESPETAGARRI  
ANDRE JUSTA ALBERDI-KOARI

Uda zan: gaba zegoen zoragarriya:

Zeru guztiya,

Izarrez estaliya:

Eta lurrian,

Osto-tartean

Lo-lo chori gaiñoak,

Īsillikan basoak;

Lore gozoak

Orriyak bildurikan;

Sartaizechoak,<sup>2</sup>

Ats-egiñikan,

Likurta<sup>3</sup> choragarritz betetzen zuen

Mendiya, zugaztiya,

Chara, zelaiya:

Guztiya zan gau artan gozotasuna,

Dena biguntasuna.

Eta ni gogaldurik,<sup>4</sup>

Alako gau ederrak lilluraturik,<sup>5</sup>

Ots-egin nuen:

¡A zér pakea!

¿Zergatik ez ote naiz arkitzen beti

Orain nagon moduan,

Pakez betea?

Eta begiraturik, nere aurrean

Baratz batean,

Nekosta chit eder bat ikusi nuen

Adarrak goraturik,

Zeruronzturik,

Zirudiyela

Esaten zegoela

Izkuntz miraritsuan:

«Goiyan dago Zerua,

Pake betikoaren bizilekua,

Eta emen béan,

Negar-artean,

Animen presondegi

¡Triste! ... ¡pisua! ...»

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(1) El ciprés.—(2) El cefirillo.—(3) Aroma.—(4) Ernbelesado.—(5) Deslumbrado.